

# GURE JENDEAK: ANIZTASUNA ETA KOHESIOA

GIZARTE FOROA - CIVICAN PAMPLONA-IRUÑEA, 28/05/2018

Herritarren mahaietan jasotako galderei erantzuna emateko, Gizarte Foro hau hiru bloketan banatu dugu, agertutako korapilo-multzo ezberdinak modu egokian askatzeko nahian. Lan-saioan ezberdinen arteko elkarrizketa izango da helburu nagusia eta, hori abiapuntu, zoru komun minimoak ezarri, beti txikitik handira jotatuz.

## 1. ABIAPUNTUA: Lurraldea(k) eta identitatea(k)

## 2. BIDEA: Hezkuntza

## 3. BARNE LOTURAK: Kohesio bidean (gizarte konfiantza)



## BIDEA: Hezkuntza

Aniztasunetik hasi eta kohesio biderako tresna ezinbestekoez arituta, hezkuntza agertzen zaigu bide bezala. Hezkuntza eta heziketaren papera kohesioaren bidean aztertzea ezinbesteko agertzen zaigu, kasu honetan ere etorkizunari begirako egitasmo partekatuen oinarriak jarritz.

### Herritarrek identifikatutako oztopoak:

- Estereotipo eta aurreiritziak
- Identitate aniztasuna, getoak
- Ezberdintasun sozialak
- Indibidualismoa eta konfiantza eza
- Banaketa administratibo, kulturala...
- Gutxiengoaren integrazioa

### Herritarren zoru komuna:

- Askatasuna, zintzotasuna, enpatia, konfiantza, konpromisoa...
- Auzolana eta elkarlana
- Lurraldearekiko lotura
- Aniztasunaren onarpena

## HERRITARREN GALDERAK

- ❖ **Heziketa:** Zer heziketa landu kohesioaren bidean?
- ❖ **Aniztasuna:** nola kudeatu aniztasuna hezkuntza sisteman?
- ❖ **Egitasmo partekatua(k):** Zer elkarkidetza mota ikusten duzue posible euskal lurralde ezberdinen arteko lankidetza eta kohesioa lortzeko? Badago elkartzen gaituen lankidetza motarik gaur egun? Proposamen zehatzak.